

Hezkidetzan oinarritutako erlazioak eraikitzeko gida

- Agertzen diren pertsonaia femenino eta maskulinoen proportzioa errealitatera egokitu.
- Bai neskak eta bai mutilak, bizitasuna, elkarlana, sentikortasuna, bakezaletasuna, ausardia...bezalako trebetasunez agertzea.
- Pertsonaia hauek toki desberdinetan kokatu, jeneroen araberako kokapen estereotipatua ekidinez.
- Emakume nahiz gizonak lanbide berberetan dihardutela erakutsi.
- Neskentzat nahiz mutilentzat interesgarriak diren jarduerak moldatu.
- Pertsonaien protagonismoaz arduratu hierarkizazio sexistarik agertu ez dezaten.

Esate baterako, emakumea eta gizona bai zuzendari gisa eta bai menpeko gisa agertu daitezela.

- Generoen araberako balore-hierarkizaziorik gabeko marrazkiak azaldu.
- Gizon emakumeen gorputzak inolako diskriminazio negatiborik gabe aurkeztu.
- Edertasunaren inguruko estereotipoak gainditu eta pertsona bakoitzak bere edertasuna baduela erakutsi.
- Irudietan femeninoa denaren gutxiespen sozialari aurka egin.
- Bizimodu berriak eskaini.